
¿Y en Euskal Herria?

¿Y qué hicieron la CAPV y Navarra? El Gobierno Vasco y las tres diputaciones de Araba, Bizkaia y Gipuzkoa se reunieron con el Estado y anunciaron a bombo y platillo un acuerdo bilateral. Vamos, de igual a igual. ¿El contenido? Exactamente el mismo que Montoro presentó a las CCAA del régimen común con un “lo tomas o lo dejas” tan unilateral como español. ¿Y Navarra? Exactamente lo mismo, acordado –¿casualmente?– el último día hábil de julio de 2018. Es decir, las Administraciones vascas acuerdan de buen grado la misma injusticia que el Estado impone

a las demás CCAA: un tope de déficit del 0,4% en 2018, el 0,1% en 2019 y el 0% en 2020. Y la misma regla de gasto que el resto de Comunidades. Esa es la garantía de que el autogobierno, de facto, no existe.

“Con esos acuerdos –subraya Txiki Muñoz–, por mucho que la izquierda llegue a los Gobiernos, no tiene margen para cambiar las políticas. Es una camisa de fuerza, utilizando la expresión de Azpiazu”, consejero de Hacienda de la CAPV. “Ésa es la clave de la crisis de la izquierda política, incapaz de promover una alternativa al neoliberalismo. Si se renuncia a explicar y combatir estos acuerdos, la sociedad pierde referencias alternativas y será cada vez más conservadora. La socialdemocracia ha renunciado a ello, dejando todo el camino libre a la ultraderecha”. Se cumple así ese viejo aforismo político: “La política no tiene espacios vacíos; lo que tú no ocupas, lo ocuparán otros”. Y con ello, otra vieja guerra resucita: la del último contra el penúltimo, pobres de aquí contra pobres de fuera, etcétera.

“Al sistema heteropatriarcal, capitalista, racista y colonial le conviene mucho la disputa entre grupos oprimidos –explica **June Fernández** en *Pikara Magazine*–, y la extrema derecha es especialista en azuzarlos. Que se lo digan a Trump, Salvini o Bolsonaro cuando azuzan la xenofobia, el racismo o la LGTBfobia para atraer a la clase trabajadora blanca [...]. Recordemos a Bush utilizando la imagen de las mujeres con burka para legitimar su invasión de Afganistán”.

Los ejemplos son infinitos, y el auge del fascismo –aquí mismo– no puede ser explicado como reacción lógica contra reivindicaciones que han ganado terreno en los últimos tiempos. “Parece que la culpa de despertar al fascismo es de Cataluña –escribe **Estitxu Garai** en *Argia*–. ¿O era de las feministas? Si la lucha por una sociedad más justa cobra fuerza, parece que eso despierta al fascismo. Pues no: el fascismo está ahí, y si ahora se levanta es porque antes ha estado muy cómodo, porque no

“Tabua gainditu da. Betidanik esan nahi zuten hori ozen esatea heroikoa bilakatu da egun, eta faxismoa bigarren mailako arazo bezala mantentzen zuen dikea apurtu da. Badator uholdea”

»





le ha hecho falta". Dicho de otra manera: "Si ahora notamos más la bota que nos aplasta es porque empujamos hacia arriba; si estás quieta, no la notarás tanto, pero eso no hace desaparecer la bota; sigue aplastándote igual".

Y esa bota se nota mucho, como apunta –también en *Argia*–, la profesora de la UPNA **Itziar Bardají**: "Hasta ahora, no defendían esas burradas públicamente; no eran políticamente correctas. Pero eso está cambiando. Se ha roto el tabú. Se ha convertido en heroico decir en voz alta lo que siempre han querido decir, y se ha roto el dique que mantenía al fascismo como un problema residual. Viene la riada". Y la propia Itziar señala que "los modelos de vida basados en el mercado y el consumo nos han robado la capacidad de profundizar y madurar de forma colectiva como sociedad". El periodista **Daniel Bernabé** subraya que "es muy fácil decir que los moros vienen para invadirnos y jugar con esa idea tradicional. La única manera de luchar contra eso -añade- es integrar a la gente en la vida real. Es mucho más difícil que te creas esas mentiras cuando participas en actividades sociales o militas en un sindicato que cuando estás tú solo".

Duela urte gutxi Trump, Bolsonaro, Orban, Salvini, Vox, AfD edo Urrezko Egunsentia ezezagunak ziren gure artean. Baina horrek ez du esan nahi ezezetik sortu zirenik. Garrantzitsuena fenomeno horien arrazoiak ezagutzea (eta borrokatzea) da, ez horrenbeste arduradunak adieraztea (norberaren akatsak ezkutatzeke sarri)

El más débil, convertido en enemigo

Los prejuicios no son exclusivos de la extrema derecha, y están alimentados por medidas políticas aparentemente inocuas, pero que van creando ese magma del que se nutren el racismo y la xenofobia. Ahí están, por ejemplo, las enormes dificultades para que se debata en el Parlamento Vasco la ILP sobre Renta Garantizada de Ingresos (RGI) o incluso el veto recibido por parte del Gobierno de Navarra, que impidió incluso la recogida de firmas alegando que la ILP iba a suponer más gasto. Tampoco es inocente que el Gobierno Vasco haya elegido el origen de los padres y madres del alumnado como eje principal para su informe sobre la escuela vasca, marcando una frontera entre el 'ellos y el nosotros' en función de la nacionalidad y desechando como causa de la segregación escolar la situación socioeconómica de las familias (independientemente del origen de los progenitores).

"Desde el momento en el que se crean la problemática del 'yo' y 'el otro', hay un proceso de diferenciación que induce casi automáticamente a la separación –advirtió recientemente **Sami Nair** en Donostia–, que tiene que ver con la construcción de la personalidad que la sociedad impone al individuo". Por esas rendijas se cuela el monstruo, y conviene detectarlo antes de que sea demasiado tarde.

En este sentido, medidas políticas aparentemente inocuas o normalizadas ensanchan esa brecha entre el 'yo' y la 'otra persona', la diferente. Así, coloca a unos colectivos dentro de la fortaleza del bienestar –por precario



2017ko urtarrilaren 27an, Trumpek 7 egun zeramatzan Etxe Zurian. Orduan, Pentagonora joan zen Steve Bannonekin batera. Eskutartean agindu betearazle bat zeraman. Agindu hori Bannonek idatzi zuen. Zazpi estatutako hiritarrak AEBetara joateko debekua indarrean jartzen zen. Trumpek eginiko hauteskunde hitzmate bat zen: terrorismo islamikoaren aurrean mugen itxiera. Agindua sekretupean gorde zuten, baita Trumpen taldeko kideen artean ere. Administrazioak eta segurtasun agentziek ere ez zekiten agindu hori sinatuko zela. Bannonek administrazioen teknikarien *influentzia* ekidin nahi zuen, aldaketa baldin badator administrazioan haustura ekarriko du, eta hori nahi zuen Bannonek. Sistema bera barrutik hautsi. Haustura boterea da Bannonen begietan.

Bazekiten ere erreakzioa etorriko zela, bazekiten protestak sortuko zituztela, eta bazekiten ere hedabideak irakiten jarriko zirela. Trumpen



Juan Etxenike 'Xare', kooperatibista

Ohartu gabe, gu denok aktoreak

taldeko kide batek esan zuen, "erabakia aurretik iragarri gabe, ostirala arratsalde batean sinatzen ba zuten, asteburu baten abiapuntuan, agindu horren aurkariak denbora izango zutela kalera atera eta haien haserrea adierazteko".

Gauza bera gertatzen zen hedabide nagusiekin, haien ohiko programazioa eten egin zuten, kaleetan eta batez ere okupatutako aireportuen zuzeneko berri emateaz gain, kanal guztietan eztabaidak eta tertuliak hedatu zituzten. Denak, jakin gabe, aurreikusitako antzezlan baten aktoreak bilakatu ziren, non gidoilariak mezu argi bat bidali nahi zuen, aldaketak oposizioa asaldutako badu, Trumpen bozkatzailearen begien aurrean, emandako hitza beteko denaren froga izango da. Kurt Bardella, Breitbart agerkari digitalaren kideak (Bannonen hedabidea) esanetan, "Bannon oso pozik zegoen mobilizazioekin, horrek frogatzen baitzuen, irabazten ari ginela eta denek bazekiten Amerika handia egiten ari ginela berriro".

Antzerki postmodernoaren teknikak politikara ailegatu dira, eta ondorioz, ez dago ikusle pasiboen eta ikusle aktiboen arteko bereizketa, adibide honek argi erakusten digu ere zein den egungo ezkerren erradiografia, herdoildutako diskurtsoarekin, proiektu alternatibaren gabekoa duena, dogmatismo idealistan erortzeko joeran dagoena, eta kontraesanezko kontzeptuen elkarbizitza konplikatuekin bizi dena. Eskuin muturra, hedabideen laguntzarekin bere aurka altzatzen direnak katua eta saguaren arteko

jolasa erreproduzitzen du. Libre utziz aurrerago ehizatzeke.

Eskuin muturra hemen dago, ez da biharko kontua ezta ere hipotesi hutsa. Baina, berak ere kontraesanak ditu eta bere mugak ere. Aitzitik ikasi du bere burua berrasmatzen, eta hori ez da bakarrik AEBetan gertatu, Brasilen eta European ere.

Hemen daude jadanik

Ez dago formula magikorik horren aurrean borrokatzeko, eta noski ezin gara etxean gelditu, "antzezlan" baten aktoreak izateko beldurragatik, inteligentzia kolektiboko tresnak imaginatu eta praktikan jarri beharko dira beharrezkoak diren ohiko mobilizazio eta kontramobilizazioetatik haratago.

Adibide pare bat ekarriko ditut, North Carolinako Charlotte hirian, antifaxistak pailazoz jantzi ziren eta neonaziak inguratu zituzten haien iruditeri "agresiboa" erridikuluan uzteko asmoarekin. Alemanian, Wunsiedel herrian, nazien martxa bat zegoen, herria kamerez bete zuten, bizilagun guztiak izkutatu ziren, eta internetez hedatu zuten, naziek egiten zuten metro bakoitzeko *Exit-Deutschland* plataformak martxa hura dirua biltzeko kanpaina antifaxistan bilakatu zuen.

Nonbait gure imaginario kolektiboan ere tresna kontzeptualak asmatu beharko ditugu guk ere *antzezlan* honetan aktoreetatik gidoilariak izatera pasatzeko. ▲

que sea– y del reconocimiento de ciudadanía, y a otros los expulsa a la intemperie, abocados a la mera supervivencia. Una de estas medidas, sin duda, se incluye en la proposición de ley que el PNV y el PSE registraron en abril de 2018 para reformar la Renta de Garantía de Ingresos (RGI) en la CAPV: quieren dar cobertura a la denominada huella digital para perseguir y estigmatizar a las personas perceptoras de este derecho básico.

¿Y cuál es el antídoto? “Sólo tejiendo redes de solidaridad podemos generar un cambio social”, con el objetivo de crear “una sociedad más acogedora”. Son las palabras con las que **Maite Ziganda** agradeció estas pasadas Navidades en Iruñea el premio Haba de Oro recibido por el SEI (Servicio Socioeducativo Intercultural), asociación independiente que acompaña a menores recién inmigrados a Navarra.

La dimensión política de estas acciones es indudable, pero todas se basan en el valor de lo colectivo, todo lo contrario a la liquidez y la ligereza de algunos modelos actuales de activismo: “Antes, la gente se organizaba en torno a dos cuestiones sencillas:

“Zein da faxismoari aurre egiteko antidotoa? Elkartasun sareak jostea; beste biderik ez dago gizarte inklusiboagoa sortzen lagunduko digun aldaketa soziala eragiteko”.

una ideología muy fuerte y una participación permanente”, subraya Daniel Bernabé. “Ahora, participamos en base a la nada, escribiendo opiniones, poniendo tuits; nunca antes habíamos escrito tanto, pero lo hacemos de forma muy fraccionada, y es imposible enterarse de nada”.

Por tanto, la acción colectiva con dimensión política es imprescindible, para no caer en el riesgo del mero activismo digital –por no hablar de los medios convencionales– que difunde todavía con más fuerza el mensaje que pretende combatir: la xenofobia y las ocurrencias de extrema derecha de Trump, Salvini o Vox.

El periodista **Esteban Hernández** aventura que Vox, “aunque sea el quinto partido de Andalucía, les viene bien a casi todos: unos, con el frente antifascista derivan hacia Vox la responsabilidad de su fracaso; y los otros (se refiere a

los partidos con responsabilidades de gobierno) los descalifican (les vota gente paleta que se creen noticias falsas...) para disfrazar las políticas que ellos mismos han desarrollado y han perjudicado a la mayoría de la población”. Y para darse cuenta de esto no hace falta irse a Andalucía. “Es síntoma de la impotencia del sistema -añade Hernández-, que busca convencer a la gente mediante el miedo; ‘que vienen los fachas’ es un intento de insuflar temor porque con argumentos racionales o políticas efectivas no logran atraer a la gente”.

Umberto Eco, en su estilo inconfundible, dejó escrita una advertencia cada día más vigente:

“Sería muy cómodo que alguien [...] dijera: ‘¡Quiero volver a abrir Auschwitz, quiero que las camisas negras vuelvan a desfilar solemnemente por las plazas italianas!’ Por desgracia, la vida no es tan fácil. El fascismo puede volver todavía con las apariencias más inocentes. Nuestro deber es desenmascararlo y apuntar a cada una de sus formas nuevas, cada día, en cada parte del mundo. Como decía Roosevelt: ‘Me atrevo a afirmar que si la democracia americana deja de progresar como una fuerza viva, intentando mejorar día y noche con medios pacíficos las condiciones de nuestros ciudadanos, la fuerza del fascismo crecerá en nuestro país.’ (4 de noviembre de 1938).” Y en todos los países.

Frente a ello, aquí y ahora, es precisa una línea de acción: “El aumento de la extrema derecha es consecuencia de las políticas de ajuste de los últimos años –resume Txiki Muñoz–; por tanto, se les debe combatir con políticas sociales, y esa debe ser la prioridad de la izquierda, tanto social y sindical, como la política”. **A**





Euskal ekaitza

GORKA QUEVEDO

Euren bizi eta lan baldintzetatik prekarietatea ezabatzeko hamaika gatazka dago zabalik – Bizkaiko Bulegoak; Gizarte Ekimeneko Ikastetxeak; luxuzko hoteletako gelen garbitzaileak; Gipuzkoako Erresidentziak; Bizkaiko Etxez Etxeko langileak; Bilbobus eta Bizkaibus; DIA supermerkatuak...–.

EAEEn 106.300 lagun dago gaur langabezian. Ekonomia hazten ari den arren dirua gero eta esku gutxiagotan metatzen da. Ez dira lanpostu berri asko sortzen, eta sortzen diren horiek gehien gehienetan oso prekarioak dira. Gainera, langabezian dauden hamar lagunetik zazpik ez du inolako langabezia-saririk jasotzen, muturreko pobrezia-ateetan utziaz.

Gizonezkoen lan bera egin arren urtean milaka euro gutxiago jasotzen dituzte emakumeek sektore askotan. Horietako askok mobilizatzea erabaki dute. Soldata-arrakala Martxoaren 8an emakumeek egingo duten greba eta mobilizazio egunaren arrazoietako bat da.

Gutxieneko 1.080 euroko pentsio baten alde kalean urtebete baina gehiago daramate mobilizatzen

pentsiodunek. Hamaika mobilizazio egin dituzte, eta jendearen haserrea nabarmena da. Denbora honetan parte-hartzea handituz joan da.

Asko dira pobrezian dauden pentsiodunak, adibidez. Eta pentsiodunak izan gabe ere asko dira egoera horretan dauden lagunak. Administrazio publikoek eskaintzen dituzten zerbitzuak urriak dira, eta kasu askotan azken urteetan murrizketak jaso dituzte.

2018an zehar lanean 46 lagun hil ziren, ia astean bat. Baina ezer gutxi inporta zaie hau administrazio publikoei: lan osasun eta segurtasunera bideratzen den dirua hutsaren hurrengoa da.

Hori (ere) bada 2019ko urtarrilean Euskal Autonomia Erkidegoaren (eta Euskal Herriko) argazkia. Horregatik 2018ko Urtezahar egunean EAEko lehendakari Iñigo Urkulluk emandako hitzaldi instituzionalak agerian uzten du bestelako errealitate batean bizi dela. Euskal 'mikroklimatez' mintzatu zen. Agian bere inguruan eguzkia izango da nagusi. Baina, ekaitzak eta denboraleak ohikoak dira makina bat jenderentzat. [A](#)



Ane Irazabal,
nazioarteko korrespontsala

**“Europa klase
ertain, zuri, zahar
eta haserretua
bilakatzen ari da”**

Argazkiak eta testua: NAGORE URIARTE

Palestinan ekin zion bere ibilbideari, Ekialde Hurbileko erlijio ezberdinen talkak, deskolonizazio prozesu amaigabeek eta interes geostrategikoek liluratuta. Beste gatazka askoren lekuko eta bozgoragailu izan da orduz geroztik: Egiptoko Udaberri Arabiarra, Greziaren gainbehera, errefuxiatuen belaunaldi galdua edota Italiako eskuin muturraren gorakada. Oraingoan etxean, Euskal Herrian, egin dugu hitzordua.

»Ikasketak amaituta motxila hartu eta zure lehen geltokia Palestina izan zen 2010ean. Zer aurkitu zenuen?

Palestinako askapen mugimenduaren gaineko ikuspegi erromantikoa neukan joan baino lehen: emakumeen papera intifadan, erresistentzia sareak... Gero bertara iristen zarenean iruditeria hori pixkat apurtu egiten zaizu, egunerokoa zure ikuspegi erromantikoa baino askoz gogorragoa delako, batez ere, palestinarrentzat.

Orduan konturatu nintzen *standby* egoera batean zeudela: bigarren intifada oso gogorra izan zen, hirugarrena nolakoa izan zitekeen aztertzen, lider politikorik gabe, indarkeriaren kontrako erresistentzia pasiboaren mugimendua sortzeko prozesuan... Nabaritzen zen palestinarren aldarte oso behean zegoela.



Ane Irazabal Ekialde Hurbilaren berri ematen.

»Etsituta?

Oso etsituta, baina aldi berean, gizarte oso irekia eta abegitsua aurkitu nuen. Halere, atzerapen bat ere ikusi dut, gero eta kontserbadoreagoa bilakatzen ari da Palestinako gizartea.

»Zergatik atzerakada hori?

Palestinarrak galduta daudelako, inongo lidergo politikorik gabe. Aginte Nazioanala daukate, adibidez, teorien etorkizuneko Palestinako estatua hezurmamitzeko sortu zena, baina gero ez da praktikan

materializatu. Gaur egun ustelkeria politikoan oinarritutako gobernuak daukate eta, gainera, Israelgo okupazioarekin hartuemanak dituen segurtasunaren alorrean.

Israeliek ekintzaile bat atxilotu behar badu Zisjordanian, lehenago Palestinako poliziak atxilotuko du. Orduan palestinarrek euren buruari galdetzen diote: noren kontra borrokatu behar dugu? Gure gobernuaren kontra ala Israelgo okupazioaren aurka?

Gainera, bigarren intifada oso gogorra izan zen, jende asko hil zen eta ez zuen inongo emaitzarik eman; are gehiago, okerrago daude.

Orientazio falta horrek eragin du, hein handi batean, erlijioa besarkatzea. Lehen Palestinan indar handia ez zuten mugimendu erlijiosoek gero eta indar handiagoa daukate. Ikusi besterik ez dago zenbat pertsona mobilizatzen diren kolonoak Al-Alqsa (Jesuralem-eko hiri santuaren meskita gunea) sartzen direnean; izugarritzko mobilizazioak dira. Enbaxada Tel Aviv-etik Jerusalem-era mugitzea erabakitzen dutenean, ordea, badaude mobilizazio batzuk, baina ez dira oso jendetsuak. Eta Palestinako gatazka beti izan da nazionala, edo indar okupatzaile baten aurkakoa, ez du inoiz zerikusirik izan erlijioarekin. Hor nabaritzen da badagoela transformazio bat.

»Gatazkaren izaera nazionala diluitu eta erlijiorako hurbilpen horrek ze ondorio ditu?

Larriena izan daiteke dagoeneko ez gabiltzala Palestinako estatu bati buruz gehiago hitz egiten ari, baizik eta zein identitate mota sortu nahi dugun, hau da, zer den palestinarra izatea. Eta hor dator agian arriskutsuena: zerekin identifikatzen gara palestinarrek garelako esaten dugunean? Musulmanak gara lehenik eta behin edo zer gara?

Oraindik ere garrantzia handia du indar kolonialaren aurkako borrokak, baina egia da erlijioa narkotiko rola jokatzen ari dela, plazeboa da; jende askok erlijioa besarkatu du, ez daukalako beste esperantzarik.

“Cada vez hay más mujeres como corresponsales en conflictos bélicos, pero muchas desaparecen sobre los 35 años ”

“En Palestina aún prima la lucha contra las fuerzas coloniales, pero la religión está ganando terreno como narcótico ante la desesperanza generalizada”

»Atzerakada zertan nabaritzen da egunerokoan?

Arratsaldeko seietatik aurrera ez duzu emakumerik ikusiko kalean. Lehen Intifadako emakumeen rola dugu oraindik buruan baina gero eta gehiago utzi dituzte etxeko esferan, eta hori oso arriskutsua da. Esperantza gabeziagatik gertatzen ari da hori, izugarrizko etsipen egoeran bizi direlako, inongo gidaritza politikorik gabe.

Guretzat, agian, atzerakada hiyab-aren erabileran nabaritzen da; Palestinan ia ia ez zuten erabiltzen duela 25 urte arte, orain gero eta gehiago.

Bada identitatea transmititzeko modu bat, baina aldi berean ez du politikarekin zerikusirik. Konplexua da.

»Zapia aipatu duzula: mendebaldeko betaurrekoekin epaitzen dugu?

Egia da Ekialde Hurbileko emakume askok ez dutela feminismo hitza ere onartzen, mendebaldartua iruditzen zaielako. Egipton, adibidez, agian ez dute hitza ere ezagutuko, baina ikusi ditut ablazioaren kontra borrokatzen duten emakume asko oso-oso feministak direnak, eta zapia daramate.

Erlatibismo kulturean erortzeko arrisku handia dago. Nawal El Saadawi feminista egipziarrak, adibidez, feminismo arabiarak bere eboluzio eta aldarrikapen propioak izan dituela defendatzen du, eta ez daukala zertan mendebaldeko feminismoa kopiatu, hein handi batean mendebaldetik datorren feminismoa kolonialista ere badelako, bere ustez.

Nik kontraesan handiak ditut; alde batetik iruditzen zait azken hamarkadetan zapia erabiltzen ari dela identitate bat sortzeko, beraz, ez dakit zein puntutaraino dagoen askatasuna.

Edozein kasutan, oso argi daukat gu ez garela inor esateko jarri edo ez. Tokian tokiko emakumeek erabaki behar dute.

Baina Europaren kasuan argi ikusten da Europako guraso migratzaileak dituzten Europako herritar askorentzat hiyab-a jartzea, bai Bruselan bai Parisen, identitatea sortzeko modu bat izan dela. Horrek hausnartzera narama: zer gertatu da identitate bat

eraikitzeko beharra izateko, bai zapi baten bidez edo erlijioaren bidez?

»Hutsune baten ondorio?

Hutsune bat dago bizi zaren gizartean ez zarelako parte sentitzen, edo ez zaituztelako parte sentiarazten utzi. Gero zapia debekatzearena erabat kaltegarria iruditzen zait. Frantziako laizismoa oso islamofobia da.

»Palestinara bueltatuz, konponbide justu bat lortuko dela uste duzu?

Ez nago batere itxaropentsu. Israel oso modu inteligentean jokatzeko ari da. Bere proiektua intergenerazionala da, hemendik 150 urtera begira pentsatutako estrategia bati jarraitzen dio. Kolonizazioa, poliki badoa ere, ziurtatuta dute.

Euren azken helburua palestinarrak haien lau guneean ixtea da, presio demografikoaren ondorioz alde egitera derrigortu arte. Ez dute presarik, arrakasta ziurtatuta dutelako.



Israelgo gobernuak bere hiriburua Jerusalem-era mugitzea erabaki zuen.





»2011n Egipton zinen. Nola bizi izan zenuen Arabiar Udaberria?

Udaberriaren ondokoa bizi izan nuen nik. Hasiera batean ilusio handiz eta gero etsipen handiz. Pozaren eta tristuraren sinboloa izan zen Egipto. Hasiera batean Tahrir-eko (Egiptoko plazarik handiena) manifestazioak ikaragarriak izan ziren, baina plaza bete zutenean eta Hosni Mubarak diktadorea erori zenean etxera bueltatu ziren. Baina Mubarak botatzea ez zen helburu bakarra, erregimen osoa bota behar zen. Aurpegia joan zen baina junta militar guztia, indar judiziala, politikoa... dena geratu zen zegoen bezala. Orain egiptoarrak orduan baino okerrago daude. Izugarritzko errepresio politikoa bizi dute, milaka desagertu, emakumeen papera gizartean Palestinan baino askoz okerrago dago...

»Ikuspegi erromantikoezia eraiki zela esango zenuke?

Oso *naifak* izan ginen kazetariok garai hartan. Gazteak ginen, ikasketak bukatu berri eta izugarritzko iraultzaren lekuko izateko aukera polita izan genuen. Egiptoarrek ogia, lana eta duintasuna aldarrikatzen zuten. Ederra zen horren testigu izatea, eta ikuspegi erromantikoa eraiki genuen. Kazetari nagusi batek esan zigun: "Honek oso gaizki bukatuko du, egiptoarrak ez daude prest demokraziarako". Oso diskurtso klasista iruditu zitzaidan une horretan. Gerora konturatu ginen herritarren %60ak ez dakienean ez irakurtzen ez idazten, zein erraza den hedabide tradizionalak erabiliz herria manipulatzeko. Diktadoreek herria erabat analfabetizatua nahi dute.

"Deberíamos preguntarnos si somos racistas o lo que sentimos es más bien desprecio hacia las personas pobres"

»Hedabideak aipatu dituzula, makrokazetaritza da nagusi. Zurea, ordea, kazetaritza intimistagoa da...

Makroarekin perspektiba galtzen dugu. Gatazka bat kontaktzen ari zarenean, garrantzitsuena testigantza edo istorio pertsonal baten bidez zerbait orokorragoa azaltzea da. Mikroa oso makroa da. Pertsona baten istorioa kontatuz gatazka bat ulertarazten saiatzea da inportanteena; hildakoak, bonbak... ahaztu egiten dira. Egunerokoa kontaktzen saiatzen naiz ni. Kontua ez da bakarrik Mediterraneoan 800 migrante hil direla esatea eta negarrak ateratzeko moduko irudiak eskaintzea, baizik eta pertsona horiek nortzuk diren kontatzea, nondik ari diren ihes egiten, ze egoera zuten jatorrizko herrialdetan... Jendea gauza pertsonalekin geratzen da, istorioekin. Migratzaileen Nazioarteko Egunean, adibidez, Erroman modako jatetxearen saria jaso duen jatetxe bat dagoela kontatu genuen, bertan 11 herrialde ezberdinetako 11 migratzaile daudela lanean, eta elkarbizitza arrakastatsuen eredu direla. Euren istorioa kontatu behar da, eta esan: "beitu, hau ere gertatzen da".

»Zuk sarritan aipatu duzu emakume izateak ate asko ireki dizkizula lanbide honetan...

Oso polita da hori eta Ekialde Hurbileko emakumeekin gertatu zait. Emakume izateak euren intimitatearen ateak ireki dizkit. Etxeko berotasun horrek ematen dizu beste harreman mota bat eraikitzeo aukera; eta hortik oso istorio politikak sortzen dira. Oso eskuzabalak dira, ezagutzen ez duten pertsona bati euren bizitzaren zati bat ematen ari dira eta trukean ez dute ezer jasotzen. Askok zor diegu. Nik ez daukat sentsaziorik ezer egin ez dudarik emakume izateagatik, asko borrokatu dut hala ez izateko.

»Adin batetik aurrera, ordea, emakume asko erredakzioetatik desagertzen dira. Nazioarteko korresponentsalen artean ere?

Belaunaldi talka izugarria dago: gero eta emakume gazte gehiago daude lanbide honetan: gatazketan, gerra kazetaritzan, nazioartean... baina adin batetik aurrera hutsunea dago. 35 urte inguruan egon ohi da muga. Beste askok lanbide honetan jarraitzea

erabakitzen dute, baina badago zenbait gauza sakrifikatzearen presioa: ume bat izatea, adibidez. Gizonek ez daukate inflexio puntu hori. Zergatik gizon bat joan daiteke hiru edo lau hilabete etxetik kanpo lanera eta ez da aita txartzat hartzen? Badago amatasunaren presio hori. Argi ikusten dut nire inguruko emakume *freelancen* artean. Beldur hori gainditzea da. Erreferenteak badira.

»Errefuxiatuen berri eman duzu... Gainformatuta gauden garaiotan zer da oraindik ez dakiguna?

Bizitzen ari garena oso arriskutsua da, belaunaldi oso bat galtzen ari gara. Badaude orain bost sei-urte dituzten haurrak Europan blokeatuta daudenak (Grezian, Balkanetan) eskolan inoiz ez direnak egon; ez daude alfabetizatuta eta Europako belaunaldi berria dira. Konturatu orduko 15 urte izango dituzte eta oso zaila izango da pertsona horiek gizarteratzea.

»Europarako migrazioa emakumeen gorputzen bortxatik pasatzen ari da?

Emakumeak gara beti lehenak indarkeria bortitzaren sintomak sentitzen. Emakume nigeriarrekin Libiarako bidean gertatzen ari dena izugarria da; edo Eritrearekin ikusten ari garena. Askok esaten dute:

“munstroaren semea daramat barruan”. Sexualitatea indarkeria instrumentu bezala erabiltzen da beti.

»Asaldatzeko gaitasuna galdu dugu ala are okerrago, suminduaren rolean eroso gaude?

Momentuko sumindura bizi dugu: sare sozialetan haserre gaudela esaten dugu, eta kitto. Ez dago ardura intergenerazionalik. Ez dago inbertsio emozional, ekonomiko eta politikorik egiteko interesik. Ez dira gauzak testuinguruan kokatzen. Ez gara konturatzen azken urteetan Europan sufritu ditugun atentatu yihadistak gazte europarrek gauzatu dituztela, Europan jaiotakoek, bertan hazitakoek, elkarbizitza hutsal baten ondorio diren pertsonak. Orain iristen ari direnekin gauza bera egiten ari gara. Ez dut hemendik 30 urte begira panorama katastrofiko bat marraztu nahi, baina gertakariak testuinguratzea falta da. Hotza, gosea, gaixotasunak... kontatu behar dira, bai, baina horrek asistentzialismoa dakar, eta jendeak negua pasatzeko botak bidaltzea. Momentuko larrialdi bati erantzuteko ondo dago, baina ez gaude larrialdi batean, kronifikazio egoera batean gaude. Abokatuak behar dira, aholkulari legalak, egoera juridiko eta politikoa argitzen lagunduko dietenak. Desinformazio handia dago, ez dakite ze aukera dituzten.



“La extrema derecha ha sabido capitalizar la rabia de la Europa de los recortes. Necesitaban un enemigo común: migrantes y refugiados. Ya está todo hecho”



“Sozialdemokraziak eskuin muturraren diskurtsoa asimilatu du”

» **Asistentzialismoarekin eskuak garbitzen ditugu? Azken finean mendebaldeak sortzen ditu errefuxiatuak...**

Noski baietz. Asistentzialismoa partxe bat da, ondo sentiarazten gaituena eta batzuetan beharrezkoa ere badena. Momentuko plazeboa da, konpromiso eta ardura politikoa badugula ahaztuarazten digun partxea. Errefuxiatuena drama politikoa da, beraz, irtenbide politikoa eman behar zaio, lehenik eta behin haien herrialdetan. Turkian zein Libian partxeak jarri daitezke, baina hainbeste aipatzen den Afrikarako Plan Marshall handi hori ondo eginez gero, haien errekurtsoak guretzat ustiatzeari utzi behar diogu; herrialde horiek garatzen utzi behar ditugu. Bestela, Eritreako gerrak jarraitzen badu herriar guztiek ospa egingo dute, Somalian berdin, Nigeriatik berdin...

» **Errefuxiatu versus etorkin, pobrea izatea hautu pertsonala edo fenomeno naturala balitz bezala...**

Asilo politikoaren eskaeraren barruan hierarkia hutsala egiten ari da: zein da errefuxiatu politikoa eta nor migratzaile ekonomikoa? Gauzarik tristeena gertatzen ari da: mailakatze bat errefuxiatuen artean, guk sortutako hierarkia, euren arteko gerra bultzatzen duena. Jaio zaren tokian miseria hutsa aurkitzen baduzu, alde egingo duzu, nola ez. Italiatik, XIX. mende amaieratik XX. mende erdialdera 30 milioi italiarrek alde egin zuten, AEB, Argentina, Brasilera... Miseria hutsean bizi zirelako egin zuten alde Sizilia eta Calabriatik. Kontua da estatu nazioak sortzen ari ziren momentuan izan zela hura, eta orduan lan eskua beharrezkoa zela. Oso ikuspuntu klasista da.

» **Ez da etorkinen kontra baizik eta pobreen kontra?**

Gutziz. Baina egia da ere lan eskua behar dela. Italian azken 25 urteetan 1,5 milioi gaztek alde

egin dute. Aurrekoan *El Pais*-eko Bruselako korrespontsal Bernardo de Miguelek twitterren jarri zuen 2015ean Alemaniara iritsi ziren milioi asilo eskaitzailetik 400.000 – 500.000 dagoeneko kontratupean lanean daudela. Beharra badago. Lan esku kualifikatu eta ez kualifikatuaren banaketa hau alde batera utzi behar dugu. Guregana datozenak pertsonak dira. Kontua da zergatik ez dugun nahi. Geure buruari galdetu beharko genioke arrazistak ote garen, edo benetan pobreenganako mespetxua daukagun. Funtsean hori da. Pobreziak beldurtzen gaitu eta bazterkeria sortzen dugu. Oso erraza da arrazista ez izatea kanpoan daudenean, baina gurera etortzean sortzen da benetako talka. Hor frogatu behar dugu enpatia sortu, elkar ezagutu eta bizikidetzat berria eraikitzeko gai garela.

» **Krisi ekonomikoa eta migrazioaren kontrako diskurtsoa lotuta eraiki ditu eskuin muturrak...**

Errefuxiatuenganako erabilera politikoa egin da, batez ere, Europako eskuin muturraren partetik. Munstro bat sortzeko beharra zegoen; munstro hori migratzaileak eta iheslariak dira. Estrategia erraza eta eraginkorra da. Ardura politikoa dago hor; baina baita gizartearena ere, ahalegin bat egiteko pertsona horiek ezagutzeko. Oso egoera arriskutsuan gaude. Maiatzean Europako Parlamenturako hauteskundeak egingo dira, eskuin muturra gora eta gora ari da eta sozialdemokrazia ez da gai izan eskuin muturraren aurka borrokatzeko. Arriskutsuagoa den gauza bat egin du: bere diskurtsoa asimilatu.

» **Deskafeinatu?**

Bai, zeharo. Hasiera batean krisi ekonomikoarekin egin zuen. Oraindik ez gara gai ikuspuntu historiko batetik Greziako erreferendumak ekarri zuena baloratzeko, baina izugarrizko kolpe morala izan zen ezkerrarentzat.



Ekialde Hurbileko emakumeek atea ireki dizkiote beti Irazabali, euren istorioa munduarekin konpartitu dezan.

»Tsiprasen garaian izan zinen Grezian korrespontsal lanetan. Munduari esperantza kendu zion bertan bizi izandakoak?

Izugarri. Lehenago hasi zen dena, baina krisiak eztanda egin zuenean 2008an Europako gobernu sozialdemokrata guztiek men egin zieten Bruselatik zetozen mozketak guztiei; hauteskundeak galdu zituzten gehienek. Syrizarekin esperantza sortu zen. Mezua argia zen: "hordago bat botako diogu Europari, indartsuak garelako eta gu garelako, agian, Europaren krisiaren sinbolorik bisualena: suizidioak, kalean geratu ziren pertsonak...". Hauteskundeak irabazi, erreferenduma antolatu, irabazi, eta azkenean Bruselatik zetozen baldintza guztiak irentsi behar izatea izugarritzko kolpe moralak izan zen.

“Estamos construyendo una jerarquía entre personas migrantes y refugiadas; las estamos enfrentando entre sí”

»Greziaz haratago, Europar guztien imajinarioa kolpatu zuen?

Europa guztiarentzat izan zen kolpea eta eskuin muturra oso eraginkorra izaten ari da horri probetxua ateratzen; krisi ekonomikoak eta murrizketek eragindako haserre hori kapitalizatzen asmatu du. Europa klase ertain, zuri, zahar, pobretu eta haserretua ari da bilakatzen, migrazioa onartzen ez badu. Horri bere haserre nola bait arintzeko etsai bat eskaintzen badiozu, eta etsai hori beltza bada, Afrikatik datorrena, Siriatik datorrena edo musulmana, kitto, ez duzu gehiago pentsatzeko aukerarik ematen. Hori da pobleen aurkako gerra: ni, ni neu baino pixkat okerrago dagoenaren aurka; ez nire gainean dagoenaren aurka, baizik eta ni baino okerrago dagoenaren kontra. Langabezia, haserre... Europa aldatzen ari da eta orain arteko Europako gizarteak ez du berritu nahi, ez du belaunaldi aldaketa hori egin nahi. Egungo Europak iragana islatzen du, dagoeneko ez da existitzen. Ze Europa utzi nahi diegu gure ilobei?

»Beldurraren diskurtsoa da nagusi. Erroman bizi zara egun. Salviniren lehen manifestazioaren pankartan irakurri zitekeen: 'STOP invasión'...

Salvinik egunero erabiltzen du inbasio hitza. Errealitatea oso bestelakoa da: Italian azken bi urtetan %92 jaitxi da migratzaileen kopurua. Ez dago inbasiorik, migratzaileak dagoeneko ez dira Italiara iristen. Gezur hori elikatzen jarraitzen du eta dagoeneko hasi da harrera etxeak ixten eta deportazioak egiten. Arazoa da kazetariok batzuetan ez ditugula gure etxeak lanak egiten. Salvini elkarrizketa batera gonbidatzen badugu, eta sei gezur botatzen baditu, kontrastatu eta informazioarekin erantzun behar dugu. Bestela ze kazetari mota gara?

»“Italiarriarrek eskatzen didatena baino ez dut egiten nik” esan zuen Salvinik. Merkelek Alemaniako mugak irekitzea erabaki eta zigortu zuten... Boto emailea gutxiesten ari gara?

Zigortua izan zen elektoralki baina uneorokotasunean bizi garelako. Ez dugu aurre egiteko inolako interesik, ez



“El asistencialismo responde a una necesidad puntual, pero se acaba convirtiendo en un parche para eludir nuestra responsabilidad política”

daukagu inbertsio emozional, ekonomiko eta politikori bat egiteko inolako interesik. 400.000 asilo eskatzaile daude Alemanian kontratupean lanean. Zenbat urte pasa dira Alemaniak hartzeko erabakia hartu zuenetik? Hiru baino ez. Hiru urtean lortu da hori guztia. Arazoa da unean uneko irakurketa baino ez dela egiten. Oso ongi kalkulaturako estrategia izan zen Merkelena, ez zen karitatea izan, baina emaitzak ematen ari da.

»VOXek Andaluziako garaipena migrazioari, LGBTI mugimendurari edo feminismoari leporatu zioten askok...

Palestinako gatazkara ekarrita, adibidez, nik bertako lagun askorekin eztabaida bera izan dut. Palestinan hainbat fronte daudenez hierarkia bat egin behar dutela defendatzen dute, hau da, lehen helburua okupazioaren aurka borrokatzea izan behar dela; gero etorriko direla feminismoa, ekologismoa... Baina ez al gara konturatzen askapen guztien alde borrokatzen ez badugu ez dugula ezer lortuko? Hori da hain justu orain gertatzen ari dena. Ezin da hierarkia bat egin. Zein da indar okupatzailea? Indar okupatzailea patriarkala ere bada, eta gizarte palestinarra patriarkala da oso. Askapen nazionalak ez nau emakume bezala askatuko, agian librea izango naiz nire estatuan baina nire etxeko eremuan mantenduko naute? Gauza bera ikusten ari naiz hemen.

»Euskaraldia igaro berri da. Gauza garrantzitsuak gazteleraz esateko ohitura duen gizartean, zer garrantzia du nazioarteko informazioa ere euskaraz eskaintzeak?

Izugarria. Nik naturaltasun osoz egiten dut, eta hala izan behar du, baina Bangladesh-eko kanpalekueetatik zuzenean euskaraz ari zarela ikustean harritu egiten dira kanpoko lagunak. Orain dela zortzi urte bizi naiz Euskal Herritik kanpo, beraz, niretzat euskaraz lan egitea plazerra da, lokarria. Oso garrantzitsua da toki batera iristea eta gainontzeko kazetarien ondoan (BBC...) ETBko mikroarekin agertzea edota *Berria*-rentzat kronika bat idaztea. Han egon behar dugu euskaldunok eta egongo gara.

»Erretiratu orduko ze albiste nahiko zenuke eman?

Italiara patera batean iritsi zen Gambiako (Afrika) gazte bat Italiako lehen ministroa dela. Horrek demostratuko luke Europako gizartea gai izan garela buelta eman eta gauzak aldatzeko.

»Ba horrekin geratuko gara...

Eta emakumea baldin bada, askoz hobe. 



Periodismo de paz

Ane Irazabal Elkorobarrutia (Arrasate, 1984)

N.U.



Vivimos en un mundo donde el capital circula libremente, no así las personas; donde somos capaces de levantar un muro que divide un pueblo; donde ponemos barreras a quienes huyen de guerras creadas por nosotros mismos. Y a pesar de ello, al otro lado del muro aún hay alguien dispuesto a abrir las puertas de su casa y recibir con los brazos abiertos a quien quiera escuchar; quien aún mantiene intacta la valentía para relatar su historia sin recibir nada a cambio, con la esperanza de que alguien la cuente al mundo. Solo eso; nada más. No es poco.

Bien lo sabe Ane Irazabal Elkorobarrutia (Arrasate, Gipuzkoa, 1984), la corresponsal internacional especializada en Oriente Próximo que recorrió durante años el *check-point* que divide Palestina para entrevistar a los y las refugiadas de 1948; la corresponsal que retransmitió la desilusión tras la fallida primavera árabe de Egipto; quien tuvo la oportunidad de conocer a mujeres egipcias que, a pesar de no reconocerse feministas, practican cada día luchas feministas dotando de significado el término sororidad; quien tras haber sido el altavoz de las personas refugiadas, alerta de que estamos perdiendo a toda una generación.

Comenzó su andadura como corresponsal internacional hace ya 8 años, pero no deja de sorprenderle la capacidad del ser humano de infligir dolor. No por ello pierde la esperanza. Ha aprendido que la resistencia es, muchas veces, simplemente seguir viviendo; agarrarse a la vida: algo tan simple, tan complicado. Sin embargo, de eso no se hacen eco los medios de comunicación, apostilla. Hace falta periodismo de paz, asegura, no solo de guerra. Echa en falta lo que ella denomina periodismo slow, un modelo que ahonde en las vidas de los y las protagonistas que hay detrás de cada noticia, que contextualice y ayude a entender la complejidad de cada conflicto. “Lo micro es muy macro”, asevera con pasión.

Tras estudiar Historia y Comunicación Audiovisual, con 26 años y la mochila al hombro, puso rumbo a Palestina, donde empezó a trabajar como corresponsal. Hoy, casi 10 años después, si pudiera elegir un titular que copase los medios, sería el que anunciase un acuerdo digno para el pueblo de Palestina. “Se lo merecen”, afirma tajante, para añadir a continuación que “realmente hay tantos conflictos que merecen una solución...” 

Tras 47 días de huelga, la plantilla de la subcontrata Constant, que limpia el Hotel Barceló-Nervión, de Bilbao, pone fin a su situación de explotación laboral

Invisibles... pero ya menos



En la imagen, Marta Lucía Carrillo, Elena Vasconez y Cristiano Callo, camareras-limpiadoras del Hotel Barceló-Nervión

J. JAIO

Desde Ecuador

Elena Vasconez (Ecuador, 38 años) emigró a Valencia en 2003 siguiendo la estela de su madre, una maestra a la que su sueldo apenas le alcanzaba para mantener a su familia en Ecuador y optó por la emigración como solución. Llegó con una

carta de invitación y luego pasó a la irregularidad, como tantos y tantos emigrantes. En su país dejó a su hijita de cuatro años al cuidado de una tía. Se le rompió el corazón. Dos años tardó en poder traerla consigo.

En Valencia hizo de todo: trabajó en el campo recogiendo naranjas, limpió casas, cuidó ancianos... Sin embargo, el trabajo escaseaba y los salarios eran muy bajos.

Un familiar que residía ya en el País Vasco le animó a empezar de cero en Bizkaia y le ofreció ayuda para establecerse. Ya aquí, con su hija, comprobó que no es oro todo lo que reluce y siguió sufriendo situaciones de abuso y explotación laboral. “Mi vida no ha sido fácil nunca, y tampoco esperaba que las cosas fueran fáciles en Bilbao. En un primer momento trabajé cuidando niños, y la verdad es que he topado con familias buenas. También es cierto que cuando estás en situación regular las cosas son más fáciles, sobre todo, a la hora de poder alquilar un piso”.

Hoy Elena vive con su pareja y tres niños. Su hija mayor, aquella de la que tuvo que separarse, ha vuelto a Ecuador. A estudiar. Y quién sabe si para quedarse. Ella, sin embargo, imagina su futuro aquí. “En Ecuador tengo familia, mis raíces, pero lo cierto es que cuando vuelvo de visita no me acostumbro y, además, aquí he creado mi familia”.

